

## **TXANELA PROIEKTUA**

### **1.SARRERA**

Ikastolen Elkartek eta Elkarlanean argitaletxeek, beren proposamen curricularren eta materialen etengabeko berrikusketa eta eguneratze ekimenean kokatzen da Lehen Hezkuntzako TXANELA proiektua.

Azken urteotan AXELKO, OTSOKO eta BELEKO lehen hezkuntzako proposamenekin lanean edo/eta harremanetan ihardun duten profesionalekin kontraste lan bat burutu eta azken ikerketa pedagogikoetatik ateratako hainbat ondorio aztertu eta esperimintatu ondoren buruturiko lana da beraz orriotan aurkezten den proiektua.

Lehen Hezkuntza da derrigorrezko eskolaratzeari hasiera ematen dion etapa. Sei eta hamabi urte bitarteko ikasleak eskolaratzen ditu eta etapa luzea da. Etapa honetan zehar haurren bilakaera etengabearen ondorioz hauen ezaugarriak ere aldatuz doaz garapenaren bidean. Bilakaera honen garai desberdinei dagokien trataera eman asmoz, etapa hiru ziklotan banatzen da, ziklo bakoitzeko haurren beharrak erantzuteko xedearekin.

Bestetik, Lehen Hezkuntzan sartzen diren ikasle gehienak Haur Hezkuntzan ibiliak dira, aurreko etapa horretan hainbat gaitasun landu dituztelarik: adimenarenak, nortasunaren ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, gizarteratzearen eta harremanen hastapenak. Honen ondorioz, Lehen Hezkuntzaren Lehen Zikloak, bi etapen arteko zubi izan behar du. Haurrek orain arte emandako eta hemendik aurrera emango duten ibilbideak lotuko dituen zubia. Ikuspuntu honetatik abiatuaz, ondorengo orrialdeetan Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloari zuzenduriko TXANELA proiektuaren ezaugarri nagusiak aurkezten dira.

## 1. EZAUGARRIAK

TXANELA proiektua derrigorrezko lehen hezkuntzako ikas materiala da. Haur Hezkuntzan Urtxintxa proiektuarekin hasitako ibilbidearen jarraipen modura aurkezten den proiektu honek, bi etapen arteko zubi lana batetik eta Lehen Hezkuntzaren oinarriak finkatzen laguntzearena bestetik ditu helburu. Lehen Hezkuntza etapa zabala den heinean (6-12urte), eta ziklo bakoitzak bere zeregina duenez hezkuntza prozesuan, hauen arteko eta beste etapekiko loturak zainduaz curriculum eskaintza koherente, bateratu eta egokia eskaintzeko asmotan sortua.

Lehen Hezkuntzako proiektuak, TXANELA proiektuak alegia, Haur Hezkuntzako URTXINTXA proiektuak biltzen dituen hainbat ezaugarri gordez, haurren garapena sustatzeko elementu berriak ere eskaintzen ditu.

TXANELA PROIEKTUAK, besteak beste, honoko ezaugarriak lituzke:

### A)HAURRA BERE OSOTASUNEAN HARTZEN DUEN PROIEKTUA.

- **Gaitasunen garapenean oinarrituta.** Pertsonaren gaitasun orokorren ( gaitasun kognitiboak, oreka pertsonalezkoak, motoreak, komunikatiboak eta gizarteratzeakoak) garapena lehenetsi egiten du proiektuak, horiek baitira haurraren garapen orekatuaren eta ezagutzaren jabetzearen oinarriak. Gaitasunak era globalizatuan jasotzen dira eduki-moten aldibereko lanketa bermatuz.
- **Ikaskuntza esanguratsua eta ikasle aktiboaren bila. Haurraren etengabeko motibazioa bultzatuaz.** Haurraren bizipenean, esperientzian eta jardunean txertatutako ikas-prozesua, haurra gatazka kognitiboen aurrean jarri eta ikaskuntzaren eraikuntza autonomoa eta konpartitua bultzatuz.
- **Aniztasuna errespetatzen duena.** Haurren garapen prozesu indibidualak errespetatzeko eta aberastasun iturri bezala tratatzeko, ikasmaterial irekia, egokitzapenak errazteko pentsatua, euskarri desberdinetan hainbat zailtasun-mailetak proposamenak eskainiz, jarduera, eduki edo helburuen aukeraketa edo aldaketak egiteko bideak erraztuz eta berdinen eta desberdinen arteko interakzioak deskribatuz, metodologiako gogoetak eginez. Horretarako taldekatze malgua eta aldakorrek proposatzen dira, ikasleen arteko elkarreragina (tutoretza, kolaborazioa, kontrastea...) bultzatuz.  
Haurrak bere arrazonamenduetan eta prozesuetan entzuteko, iritziak kontrastatzeko, erabakiak hartzeko prozesuak deskribatzen dira. Erantzun eta prozesu anitzen onarpena eta etengabeko ekar jartzea bultzatzen da TXANELA proiektutik. Prozesuen garrantzia azpimarratuz.
- **Balio eta jarreraren hezkuntzarekin konprometitua. Balioak, trebetasun sozialak, jarrerak eta zehar lerroak esplizitoki lantzen direlarik.** Ikasleen prestakuntza integrala baloratzen du proiektuak, unibertsalak eta funtsezkoak diren printzipioen hezkuntzari (eskubideen berdintasuna, lagunkidetasuna, justizia, osasunaren balorazioa, askatasuna) arreta berezia, sistematikoa eta kontzientea ematen diona. Honela unitateen sekuentzia tematikoan zehar, ikuspuntu hau integratu egiten da, baita zenbait proposamen berezi aurkeztu ere. Haurren eta besteen bizitzan gerta daitezkeen arazodun egoerak behatu, interpretatu, eztabaidatu eta irtenbideak bilatzeko aukerak eskaintzen dira.

## B) EUSKAL HERRI OSORAKO EGINA

- **Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena.** Curriculum komun baten barruan, betiere, hizkuntzarekiko abiapuntuak kontuan hartzen dira eta proposamen didaktiko bereizi batez erantzuten zaie.
- **Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona.** Euskal kultur ondarea gorde eta luzatzeko konpromezua gure gain dugula, euskal kulturaren elementu bereziak sistematikoki landu eta esplizituki adierazten dira ikasmaterialetan. Haurrak bere inguruko agerpen kulturalakiko interesa eta errespetuzko jarrera garatu dezan, interesgune eta testuingurura ekarrita, tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, euskal artistek egindako hainbat lan plastiko eta musikalak, egungo literaturaren eta tradiziozko literaturaren adierazleak, musika, dantza, festak, kirola, mitologia... eskaintzen dira. Ikasmaita bakoitzeko edukien koadroan eta unitate guztietan, curriculumaren euskal dimentsioarekin zerikusia duten proposamenak nabarmentzen dira.
- **Herrialde guztietako erreferentziak jasotzen dituen.** Herrialde guztietako ikasleek ulertu eta identifikatzeko moduko proposamena, erreferente ezberdinak kontentplaz, eta euskara batuan idatzita izan arren, euskalkien ulermen eta errespetua pizteko proposamenak txertatuz.
- **Euskalduntasunetik abiatuz, kultura unibertsalerako bidea egiten duena.** Gure garaiko ezaugarri nagusi bat mundu zabalean bizi garenon arteko bata bestearekiko lotura da. Gaur egungo gizartearen bizitzeko erreferentzia-esparrua gizadi osora zabaltzen da. TXANELA proiektuak euskaldun izaera abiapuntu izanik, kultura unibertsalaren aniztasunaren eta aberastasunaren partaide egin nahi ditu ikasleak. Gure munduko erreferentzia kulturalak proposamenean etengabe txertatzen dira eta ELEANITZ proiektuaren barruan, hizkuntzen trataera integratua ahalbideratzen da.

## C) DISEINU BATERATU ETA ERAGINKORRA.

- **Derigorrezko Hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua.** Etapa eta zikloen ezaugarriak kontutan harturik, eta berezitasunak errespetatuaz euren arteko loturak eta uztarketak eginez curriculum bateratu eta koherentea.
- **Hezkuntza asmoen esplizitzailea.** Deskribapen pedagogiko zabal eta sakona egiten da, etapako helburu orokorretatik jarduera zehatzetarainoko bidea zehazki esplizitatzen delarik, informazio horren babespean irakasleak bere erabakiak hartzeko gaitu nahian.
- **Irakaslegoaren berrikuntza eta formazioaren bultzatzailea.** Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen ikuspegi eraikitzailearen hainbat alderdi etengabe deskribatuz irakaslearen berrikuntza eta prestakuntzan saiatzen den materiala. Eskaintzen diren euskarriez gain, formakuntza zuzeneko saioak garatzen direlarik.
- **Eduki desberdinen lanketarako euskarri askotarikoak integratzen dituen proiektua.** (Ikus ikasmaterialetan aurkezpena).

## **2. LEHEN ZIKLOKO IKASMATERIALEN AURKEZPENA:**

Hezkuntza eduki desberdinak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak) kontutan harturik, bakoitzari hein egokienean egokitu nahirik, euskarri askotarikoak era integratuan aurkezten dituen proiektua da. Euskarrien erabilera gidatua, sekuentzia tematikoa zehar agertzen diren era desberdinetako edukiak, dagozkien baliabide metodologiekkin ustiatzeko aukera integratua eskaintzen delarik.

Ikasmaita bakoitzeko honoko baliabideak eskaintzen ditu TXANELA proiektuak:

**Ikaslearen liburuak: TXANELA 1 eta TXANELA 2.** Liburu bakoitza, ikasturte bateko materialaren oinarria, 8 unitate didaktikoz –bakoitza liburuxka bat delarik– osaturiko ikaslearen liburua litzateke. Denboralizazioari dagokionez, lehen hiru unitateak lehen hiru hilabeteetan landuko lirateke Gabonetako aipamenarekin trimestrea bukatuaz. Hurrengo bost unitateak, urteko egutegiaren arabera bigarren eta hirugarren trimestrean banatuko lirateke. Azken unitatea, zortzigarrena alegia, aurreko guztietan landutakoaren sintesi moduko unitatea delarik.

Unitate hauekin batera, ikasleak beste material bat jasoko du: **MATERIAL OSAGARRIA**rena bata, eta lehen mailan **HIZTEGIA** baita ere.

Material osagarriaren liburuxketan, unitate desberdinetan proposatzen diren hainbat proiektu gauzatu ahal izateko paperezko plantilla eta ereduak jasoko ditu (agendaren orriak, zuhaitzen hostoen eta enborren bildumarako orriak, gonbiteak, errezeta libururako txantiloak...).

Lehen mailan eskaintzen den “Hiztegian” berriz, Joxan Ormazabalek hizki bakoitzarentzat sortu duen poema batez eta Elena Odriozolaren marrazkiez apainduta, haurrek fonemen behaketa egiteaz gain, bertan bere hiztegitxoia idatziaz osatu ahal izango dute. Hiztegi honetan, alfabetoaz gain, euskal soinuen (dd, tt, ts, tx...) atala ere zabaldu delarik. Baliabide hau, lehen mailako materialarekin batera eskaintzen bada ere, ziklo osoan zehar erabiltzeko proposamenak luzatzen dira.

Unitate didaktikoaren ardatza diren liburuxken bidez, haurrek zikloa zeharkatuko duen istorio edo abenturaren haria jarraitu ahal izango dute eta nagusiki euskarri honetatik abiatuko dira beste euskarriak lantzerako, bertan hainbat ikono erabiliz proposatzen baita ibilbidea.

Unitate didaktiko hauek azaletik bertatik lantzen hasten dira. Hasierako jardueren multzoan kokatzen den azalaren behaketaren ondorioz Tough-en hizkuntza funtzioak lantzeaz gainera, aurrikuspena eta motibazioa lantzen dira. Hurrengo jarduera **KOMIKIA** izan ohi da. Komikiaren protagonistak lehen zikloko bi haur eta euren maskotak dira: Maddalen (oriotarra), Fermin (vianarra), Urdintxo (guakamaioa) eta Pox (artzain zakurra). Pertsonaia hauek Maddalenen birraitonaren ametsa betetzea dute helburu. Hau da, museo bat eraiki nahi dute. Eta horretarako, birraitonaren “Denboraren makina” konponduko dute denboran eta espazioan hainbat bidaia eginez, ikerketatxoak garatuaz, informazioa bilduaz, museorako piezak eskuratuaz ... helburua betetzeko. Museoa ziklo amaieran osatuko dute.

Komikiak murgilduko gaitu unitatean, **HASIERAKO** jardueren multzoaren barruan bigarren **MOTIBAZIO** jarduera. Hizkuntzari dagokionez dituen birtualitatez gain,

haurrak gaiaren inguruan zentratzeko eta motibazioa pizteko balio duen elementua da testu hau.

Behin gaiaren kokatu ondoren, eta HASIERAKO unearren barruan baita ere, haurren AURRE EZAGUTZAK aktibatzen jarduerak lantzen dira eta baita ere, nola hala haurrekin ikasiko dutena eztabaidatu eta adosteko tarte bideratzen da. Unitateak bere ardatza eta haria eskaintzen badu ere, IKASNORABIDEA guztien artean aurre ikustea proposatzen baita, hau da, prozesuan zehar gauzatzea proposatzen diren ekintza nagusien aurkezpena. Bestez, TXANELA proiektuan haurren ANALISI-SINTESI gaitasunak landu nahi dira: ikuspegi orokorretatik, xehetasunetara joaz eta baita alderantzizko bidea proposatuz ere. Unitate bukaerako orrietan, hilabete zehar landu eta ikasitakoari buruz hausnarketa-sintesi txiki bat egiteko aukera eskaintzen delarik. Poliki-poliki hainbat kontzeptu mapa jartzen dira haurren begi bistan eta eurekin batera kontzeptuen arteko loturak eraikitzea proposatzen. Era honetara, informazioa antolatzeke hain baliagarria den tresna honen hastapeneko lanketa eginez.

Ikas norabidearen arabera antolatutako sekuentzia tematikoari ematen zaio hasiera, eta ibilbide honi, helburu xume bat jartzen zaio, unitatearen hasieran proiektuaren proposamena aurkeztuz.

PROIEKTUA (Unitatearen amaierako unean gauzatu edo bukatuko dena eta maila batean sintesi izaera duen jarduera) baita ere HASIERAKO unean proposatzen zaio haurrari. Pertsonaiek aurkezten dute proiektua eta hainbat izaera eduki ditzake, antolaketari, arlo baten ezagutzari, testu mota bati eta funtzio sozial jakin bati loturikoa. Hona, adibide gisa, lehen zikloan proposatzen diren hainbat proiektu txikien zerrenda:

1. maila :Ikasgelaren antolaketa; lagunen izen eta beste datuekin agenda; dinosauruen garaiko maketaren (su-mendiak , landaretza, dinosauruak...) eraikuntza eta erakusketaxoa; lehen gizakiaren bizimodua imitatuz antzerkitxoa; errezeta liburuxka; dieta egokia kontutan hartuta, otarteko baten prestaketa eta askari baten antolaketa; ikastolako Olinpiaden prestaketa; eraikuntzak: Koliseoa eta akueduktua; parkearen azterketaren ondorioz, aldizkaritxoa eta erakusketa...

2. maila: Ikasgelaren antolaketa; nire historiaren albuma; herriaren aldizkaria; eguzki sistemaren eraikuntza; irratsaioaren antolaketa; birziklatutako materialekin arte-lanen eraikuntza...

Behin helburua eta ibilbidea definituz gero, atalez atal heltzen zaio interesguneari; hau da, unitatearen bigarren unea edo GARAPENekoari ekiten zaio, azkenik AMAIERAKO edo sintesi jarduerekin prozesuari bukaera emateko.

**Irakurgaien liburuak: Irakurgaiak I eta Irakurgaiak II.** Bertako irakurgai guztiak hertsiki loturik daude ikaslearen liburuan lantzen diren gai eta atalekin. Ikaslearen liburuan azaltzen diren ikonoen bidez, irakasleak nahiz ikasleak jakingo du, lan sekuentzia zehatz bakoitzari dagokion irakurgai zein den. Unitate guztietan, hainbat testu mota daude txertatuta, honela haurrek ikasturtean zehar tipologia honen inguruko behaketa, hausnarketa eta zenbaitetan ekoizpen lana egingo dutelarik. Hauek dira aipatutako testu batzuk: bertsoak, ipuin laburrak, azalpen testuak, berriak eta erreportajetxoak, abestiak, igarkizunak, olerkiak, hitz jokoak, instrukzio testuak (errezetak, jolasteko arauak...)

Testu hauek, zenbaitetan haurrek bakarka edo binaka irakurtzeko dira, baina baita irakasleak haurrei irakur diezazkienen badira beste batzuk.

Horretaz gain, ipuin luzea edo bertsi literarioa landu asmoz, TXANELA proiektuak MARI saileko hainbat ipuinen lanketa iradokitzen du irakaslearen gidaren bidez eta CD-romean ere hauen irudiak ikusi eta ipuina entzuteko aukera eskaintzen delarik. Ipuin hauek lantzen den interesgunearen arabera sailkatuak izan dira.

**Hizkuntzako lan-koadernoak (1,2,3 eta 4).** Ziklo honetan berebiziko garrantzia hartzen du hizkuntza idatziaren kodearen lanketak. Haur Hezkuntzan zabalduetako bideari jarraituz, TXANELA proiektuan alderdi hau ikuspegi eraikitzailetik lantzen jarraitzea proposatzen da eta ikusita dago haurren gehiengo handi bat ibilbide honetan zehar kodeaz jabetzera iristen dela. Nola nahi ere, garai silabikoan murgildu diren hainbat haurrentzat, kontzientzia fonologikoaren lanketa, behaketa sistematikoagoa eta erreferentzien hurbilketa beharrezkoa dela iritziz, TXANELA proiektuak, bai lan-koaderno hauen bidez, baita Cd-rometan txertaturik hainbat errepikapen jardura proposatuaz, kodearen lanketarako aukera zabaltzen du. Lan-koadernoetako oinarriko proposamena, aniztasunari erantzuteko asmoz, Cd-romeko aukera malgutasunari esker aberasturik eskaintzen da.

Hona, lehen mailako jardura tipo batzuen aipamena: Letra zopak; gurutzegramak; abestiak, bertsoak... ordenatuaz osatzeko; dagokion oina aukeratuaz bertsoa osatzeko; mezu sekretuak osatzeko; silabak era egokian elkartuz hitzak osatzeko; letra larria eta lotua erlazionatzeko ariketak...

Bigarren mailan berriz, aurreko jardurekin jarraitzeaz gain, poliki-poliki testualizazioaren inguruko lehen urratsak lantzen hasten da.

**Musikako CD-ak: Abestiak 1, Abestiak 2, Jarduerak 1 eta Jarduerak 2.** Bi material eskaintzen dira. Bata nahiz gelarako, nahiz etxerako balio duen abesti bilduma; "Abestiak" izeneko Cd-an jasoa. Eta irakasleak musika proposamena aberasteko eta musikako lan-koaderno ustiatzeko erabiliko duen Cd-a, bigarrena, "Jarduerak" izenez deitua.

Abestien Cd-an, gaiarekin lotura duten abestiak eskaintzen dira. Abestiei dagokienean, Haur Hezkuntzako eskema bera jarraitzen da TXANELA proiektuan, ondorioz unitate guztietan honoko abesti hauek aurkitzen dira:

- . Gaiarekin loturiko tradiziozko abestia.
- . Jolas abestia.
- . Gairekin loturiko beste abestiak (egungoak eta berriak).
- . Entzunaldiak

Unitateetan zehar lantzen diren gaiekin lotura hertsia duten abestiez gain, Jardueren Cd-an, musikako lan-koadernoko hainbat jardura burutu ahal izateko grabazioak eskaintzen dira. Grabazio hauen bidez, batik bat soinuaren diskriminazioa landuko da: Soinua eta objektua/animalia erlazionatzeko jarduerak, soinu ahulak eta bortitzak bereiztekoak, hotsa eta isiltasunaren pertzeptzioa lantzekoak, soinu luzeak eta laburrak bereiztekoak, intonazio aszendentea eta deszendentea bereiztekoak, eta lengoia musikala (solfeoa) lantzeko entzunalditxoak baita ere.

**Musikako lan-koadernoak (1 eta 2).** Jardueren Cd-a erabiliz, musikako lan-koadernoan, haurrek soinuaren hainbat kualitaterekin inguruko ariketak eta lengoia musikalaren jabetzaren ingurukoak egingo dituzte.

Baliabide honi ikaslearen liburuan dagoen gaiaren abestiaren bidez– hau da unitate globalizatuko gaiaren bidez- ematen zaio sarrera. Nolanahi ere, Lehen Hezkuntzako hainbat eta hainbat ikastetxeetan arlo hau irakasle espezialistaren esku dagoenez, jarraian datozen jarduerak ez dira nahi eta nahi ez unitate globalizatuarekin lotuak.

**Bideoak: Birraitonaren Makina I eta Birraitonaren makina II** Bideoaren bidez, aho hizkuntzaren ulermenaren lanketa bideratu nahi da. Entzumena eta ulermena landuko dira euskarri honen bidez, eta honen aplikazioa, unitateetan zehar egin beharreko hainbat jarduera osatu ahal izateko informazioa jasotzea litzateke. Bigarren unitatetik aurrera, guztietan dago bideoa jotzeko proposamen bat gutxienez.

Bideoaren egitura, komikian azaltzen diren bidaia eta egoerekin erlazioan antolatu da. Batetik, unitate bakoitzeko informazioaren beharrari erantzungo dio. Eta bestetik, bideoa osorik ikusi nahi izanez gero, kurtso amaieran adibidez, egindako bidaia eta ikusitako hainbat gai, guztiak bata bestearen atzetik istoriotxo bat osatuaz ikusi ahal izango da. Hemen ere, pertsonaien animazioak eta hitzak erabili dira haurren arreta mantendu ahal izateko eta kontzeptu eta hitz ilunak argitzeko. Narratzailearen (aitonaren) adierazpenak, pertsonaiek etengabe eginiko iruzkin eta galderen bidez mozten dira haurrei argibideak eman asmoz.

(Ikus bideoaren gida)

### **CD-rom interaktiboak: Birraitonaren Makina I eta Birraitonaren Makina II.**

CD-rom interaktibo honen bidez, besteak beste, haurrak errepikapena eskatzen duten hainbat prozedura lantzeko aukera izango du. Jardueren mailakatzea ere askotarikoa da eta haur bakoitzak duen beharretara egokitzeko aukera eskaintzen da.

Egiturari dagokionez, beste baliabideak bezala, pertsonaien istorioarekin erlazionaturik dago bete betean, eta museoa osatzearen helburua haurrari proposatzen zaio hainbat jarduera era egokian eginez.

Lehen mailako Cd-room interaktiboan aurkezten diren jarduerak:

- . Karaokea: Ipuinetako abestiak eta pertsonaien abestia irakurri eta abesteko.
- . Ipuinak. Tradiziozkoak eta berriak. Entzun eta irakurtzeko. Entzuteko bakarrik.
- . Ipuinak ingelesez.
- . Ipuinak sortzeko taillerra.
- . Hizkuntza idatziaren kodifikazioa/dekodifikazioa indartzeko jarduerak.
  - Gurutzegramak
  - Letra-zopak
  - Silabak elkartuz hitzak osatzeko ariketak.
  - Hitzak ordenatuaz esaldiak osatzeko ariketak.
  - ...
- . Idazketa taillerra. Irudien artxiboarekin
- . Bideoa eta galdeketa jokoak.

Bigarren mailako Cd-rom interaktiboak aurkezten diren jarduerak:

- Bideoa eta galdeketa jokoak.
- Karaokea: Ipuinetako abestiak eta pertsonaien abestia irakurri eta abesteko. Ingelesez abesteko.
- Gaiari loturiko ipuina laburrak. Entzun eta irakurtzeko. Entzuteko bakarrik. Haurrek bere ahotsarekin grabatzeko.
- Gaiari loturiko ipuina berridazteko lantegia.
- Ipuin-lantegia. Ipuinak ekoizteko aukera: hondoak, pertsonaiak, testua, ahotsa...

- Aitonaren lantokia. Hizkuntza idatziaren kodearen eraikuntza:
  - Hitzak ordenatuz, esaldia osatu.
  - Esaldi zatiekin, esaldiak osatu.
  - Sinonimoak eta antonimoak.
  - Esaldia ordenatu paragrafoak zentzua izan dezan.
- Sotoa:
  - Hitzen sailkapena (irizpide semantikoaren arabera).
  - Hitzak paragrafoan dagozkien tokian txertatzea.

### **Matematikako Liburuak (1 eta 2).**

Liburu hauetan ( maila bakoitzeko bat), ikaslearen liburu globalizatuan lantzen diren interesgune berak aurki daitezke. Beraz, liburu globalizatuak bezala, 8 unitatez dago osaturik. Hauetan ere, azken unitatea, ikasturtean zehar landu diren atal nagusien errepeaso eta sintesirako delarik.

Matematika arloaren xedea, hurrek problemen ebazpenerako gaitasuna garatzea dela kontutan harturik eta ikuspuntu hori etengabe azpimarratuz, unitate bakoitzean, aipatu interesguneetan txertaturik, honoko blokeak lantzen dira:

. Logikako esperientziak: sailkapenak, seriazioak...

. Aritmetikako esperientziak. Zenbakiak eta eragiketak: esanahia eta estrategiak. Kopurua eta zenbakiak erlazionatzeko, zenbakiaren identifikazioa lantzeko, zenbakiaren alderdi ordinala lantzeko, hamarrekoak lantzeko, batuketa eta kenketa egoerak identifikatu eta aplikatzeko...

Neurria ikertzeko esperientziak: objektuei eta denborari buruzko informazio kuantitatiboa.

Geometriazko eta topologiazko esperientziak: forma geometrikoak eta kokapena espazioan

Informazioaren antolamenduari dagozkion esperientziak: grafikoak.

### **Matematikako Lan-Koadernoak (1,2,3,4)**

Algoritmoak eta trebetasunak indartzeko alde batetik, eta estrategia orokorrak sendotzeko bestetik, hainbat jolasek osatzen dute lan-koaderno hauen muina.

### **Matematikako CD-roma: “Bat, bi, hiru, lau eta bost... zu Urdintxo eta ni Pox!”**

Lehen ziklo osorako prestatutako CD-ROM honetan bi atal bereizi ahal izango dira. Batetik, matematikako (aritmetikako batez ere) hainbat prozeduren errepikapena jolas bidez lantzeko jokoak, lan-koadernoan egingo dituzten ariketen osagarri modura eta haurren behar desberdinak era mailakatuan lantzeko aukerarekin. Eta irakasleak, taldearen naiz haur bakoitzaren beharren arabera abian jarri ahal izan izango dituen ariketen bilduma, bestetik. Jarduera hauek guztiak proiektuaren gidari diren pertsonaien iradokizunez hornitutako eszenatokian integratuta aurkezten dira. (Ikus Cd-romaren gida).

## **UNITATE DIDAKTIKOAREN EGITURA (LABURPENA)**

### **Hasierako jarduerak:**



- Azalaren behaketa talde elkarrizketa bidez (aurreikuspena, motibazioa).
- Komikia (unitate didaktikoaren gaiaren kokapena, motibazioa).
- Aurre ezagutzak
- Ikasnorabidea.
- Proiektua.


**Garapena:**

- Unitatea sekuentzia tematiko baten arabera atalez atal eta arlo desberdinak landuaz.
- Hausnarketa.

**Sintesia**

S E K U E N T Z I A	E U S K A R R I
T E M A T I K O A	G U Z T I A K

**LEHEN ZIKLOKO MATERIAL KURIKULARRAK**





**LEHEN ZIKLOKO UNITATE DIDAKTIKOAK ETA BERTAN LANTZEN DIREN INTERESGUNEAK.**

<b>1. MAILA</b>	<b>2. MAILA</b>
<p>1. U.D.: <b>IUPI, LEHENENGO MAILAN GAUDE!</b>                      Pertsoneien eta makinaren aurkezpena                      Proiektua: Agendatxoa eta gelaren antolaketa.</p>	<p>1.U.D : <b>ZEIN TXIKIA JAIIO NINTZEN!</b>                      Familia eta norberaren bilakaera pertsonala.                      Proiektua. Nire historia.</p>
<p>2. U.D. : <b>DINOSAUROEN GARAIAN</b>                       Proiektua: Maketa</p>	<p>U.D. : <b>NOLAKO TXABOLA!</b>                      Erdi aroa: Herrien sorrera.Gazteluak.                      Proiektua: Nire herria/hiria.</p>
<p>3. U.D. : <b>LEHEN GIZAKIAK GABONAK.</b>                      Proiektua: Antzerkia antolatu.</p>	<p>3.U.D.: <b>BOGA-BOGA MARIÑELA!</b>                      Balearen arrantza; Euskal nabigatzaileak; piratak eta kortsarioak; Itsasoa fantasia iturri. Gabonak.                      Proiektua: Uretako animalien bilduma.</p>
<p>4.U.D. : <b>GORPUTZA ZAIN DEZAGUN!</b>                       Gorputzaren morfologia; Elikagaiak, dieta. Osasun ohiturak. Gizakia neolitikoan (artzain eta nekazari).                       Proiektua: Askaria (otartekoa). Errezeta liburuxka.</p>	<p>4.U.D. : <b>HAMAR, BEDERATZI, ZORTZI, ZAZPI, SEL.</b>                      Gure mundua espaziotik (Lurra,kontinenteak); Eguzki sistema.                      Proiektua: Planetarioa bolumenean eraiki.</p>
<p>5.U.D. : <b>ONDO PASA TOMASA!</b>                      Neguko festak: San Blas, Santa Ageda, Inauteriak... Antzinako Grezia. Kondairak, ohiturak... Olinpiadak.                      Proiektua: Ikastolako Olinpiadak antolatu.</p>	<p>5. U.D. : <b>MAKINA MATXURATUTA? GOAZEN MEKANIKARIARENGANA!</b>                      Ogibideak. Produktuen ekoizpen prozesuak. Birziklaia.                      Proiektua: Birziklatzeko materialekin arte-lanak eraikitzea.</p>
<p>6.U.D. : <b>AVE CESAR!</b>                      Erromatarrak. Erromatarrak Euskal Herrian.                      Proiektua: Erromatarrek bezala, eraikinak egingo ditugu: Koliseoa eta akueduktoa.</p>	<p>6.U.D. : <b>GORA GUTENBERG!</b>                      Komunikazioa eta komunikabideak.                      Proiektua: Irratsaio baten prestaketa eta emanaldia.</p>
<p>7. U.D.: <b>NATURAREN SEKRETUAK.</b>                       Parkeko edo natur guneko bizidunen (animaliak eta landareak), eta bizigabeen azterketa.                      Proiektua: Natur gunearen aldizkaritxoa (hostoak, animaliak) eta erakusketa.</p>	<p>7. U.D.: <b>GOAZEN MENDIRA!</b>                       Ibilbide baten azterketa: bizidunak (landare eta animaliak) eta bizigabeak.                      Proiektua: Ibilbidearen gida edo seinaleztatzea.</p>
<p>8. U.D. : <b>LASTER OPORRAK!</b>                      Berrikusketa eta sintesia; oporrak eta garraioak                      Proiektua: sintesi horma-irudia.</p>	<p>8. U.D. : <b>AMAIA DA HASIERA.</b>                      Berrikusketa eta sintesia.                      Proiektua: gurasoei emanaldia.</p>

### **3. MARKO PEDAGOGIKO OROKORRA.**

#### **3.1. Etaparen xedeak.**

Lehen hezkuntzaren oinarrizko xedea haurraren garapen pertsonala bultzatzea da dagokion gizarte-taldean integra dadin, bertan era autonomo eta sortzailean ihardunez.

Aurrekoaren arabera, bata besteari estuki loturiko Lehen Hezkuntzaren hiru xede bereiz daitezke:

Ingurunean ikaslea garatu eta autonomoki ihardun dezan lortzea. Horretarako eskolak behaketa, interpretazio, gogoeta kritikozko gaitasunak garatu beharko ditu, epai pertsonalak lantzen lagunduz.

Norbanakoaren sozializazio egoki bat lortu elkarbizitza demokratiko baterako jarrera egokiz. Horretarako beharrezkoak izango dira adierazpen eta komunikazio gaitasunak, gizartearen elkarbizitza arautzen duten oinarrizko balioen estima eta garapen gaitasunak eta bere inguruaren ezagutza eta berarekiko iharduera-erantzule gaitasunak.

Azkenik eta aurreko bi xedeak lortzeko, hirugarren bat aipatu behar da oinarrizko tresnak eskuratzeari buruzkoa.

- a) Mintzaira mota ezberdinen interpretazioa eta adierazpen baliabideen erabilera eskolan sartu aurreko gaitasun komunikatiboa areagotuko dutenak.
- b) Ingurunea interpretatzeko eta bertan era aktibo eta kritikoan eskuhartzeko beharrezko kontzeptu, prozedura eta jarreraz jabetzea.
- c) Kulturarekin identifikatzeko eta ingurunean gizarte bizitzan era indibidual eta kolektiboak eskuhartzeko esperientzia afektibo, motore, sozial eta kognitiboaren garapena.

### 3.2.Etapako Helburu orokorrak.

#### LEHEN HEZKUNTZAKO HELBURU OROKORRAK

- a) Norberaren gorputza ezagutzea eta beronetaz arduratzea, osasun eta ongizaterako ohiturak hartuz eta zenbait jokabidek osasunean eta bizi-kalitatean duten eragina baloratzea.
- b) Ohizko ihardueretan nahiz talde harremanetan autonomiaz jokatzeko, inizatibak hartzeko eta harreman afektiboak finkatzeko aukerak emanez.
- c) Talde ihardueren plangintza eta ekintzetan kolaboratzea, demokratikoki ezartzen diren arauak onartzea, norberaren interes eta helburuak besteenei egokitzea, ikuspuntu desberdinak errespetatuz, eta dagozkion erantzukizunak bere gain hartzea.
- d) Pertsonekin, egoera sozial ezagunetan, harreman orekatu eta emankorrak finkatzea, elkartasunezko jokabide batez, sexu, gizarte-maila, sinesmen, arraza edo bestelako ezaugarri indibidual edo sozialengatiko bazterkeria oro errefusatuz.
- e) Ingurune natural eta sozialeko gertaera eta fenomenoak ulertzea eta hauen arteko erlazioak ikustea, eta ahal den neurrian ingurugiroaren defentsa, zainketa eta hobekuntzan parte hartzea.
- f) Kultur ondarea eta gozatzea, bere zainketa eta hobekuntzan parte hartzea eta hizkuntza eta kultur aniztasuna errespetatzea, herri eta gizabanakoen eskubide gisa, eskubide honekiko interes eta errespetuzko jarrera landuz.
- g) Euskarazko eta gaztelaniazko ahozko nahiz idatzizko mezuak ulertu eta ematea, asmo eta komunikazio testuinguru desberdinetan; halaber, hizkuntza atzerritar batean, testuinguru jakin bateko ahozko eta idatzizko mezu errazak ulertu eta ematea.
- h) Ahozko, gorputz, ikusmen, plastika, musika eta matematika espresio-bideen bitartez komunikatzea, sentsibilitate estetikoa, sormena eta arte lan eta adierazpenez gozatzeko gaitasuna landuz.
- i) Galderak eta problemak eguneroko esperientzian oinarrituz antzeman eta planteatzea, norberak duen ezagupena eta baliabide materialak nahiz besteen laguntza erabiliz, arazoak modu sortzaile eta autonomoan konponduz.
- j) Problema errazen konponbiderako informazioa jasotzeko prozedura egokiak erabili eta kodigoen bidez adieraztea, soluziobiderako beharrezkoa diren baldintza material eta denborazkoak kontutan hartuz.
- k) Giza bizitza eta elkarbizitza gidatzen duten oinarrizko balioez konturatzea eta berauek oinarritzat hartuz jokatzeko.

### **3.3.Arloak**

Lehen Hezkuntzako curriculum arloak, **globalizazio-irizpideen** arabera era integratuan aurkezten direnak, honoko hauek dira:

- Ingurune Natural, Sozial eta Kulturalaren ezagupena.
- Arte Hezkuntza (plastika, musika eta dramatizazioa).
- Euskara, Gaztelania eta Literatura.
- Atzerriko hizkuntza
- Matematika.
- Gorputz Hezkuntza.

TXANELA proiektuan, lehen bosten lanketarako proposamena aurki dezakegu. Gure inguruko ikastetxe guztietan Gorputz Hezkuntza arloa irakasle espezialistaren esku geratzen denez, Txanela proiektuan ez da proposamen formalik luzatzen nahiz eta arlo honi dagozkion hainbat edukik, beste arloetako edukiekin (gorputza, mugimendua, adierazpena, dantza, elkartasunezko jolasak...) dituzten harremanak direla medio, hainbat alderdi lantzeko proposamenak aurki daitezkeen.

### **3.4.Zehar lerroak**

Zehar lerro hauek lantzen dira TXANELA proiektuan:

- Sexu-berdintasunerako hezkuntza edo hezkidetzeta.
- Giza eskubidea, harremanak eta Bake Hezkuntza
- Osasun Hezkuntza
- Kontsumorako hezkuntza
- Gizarte-komunikabide Hezkuntza
- Bide-Hezkuntza.
- Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza.

Zehar lerro hauen lanketak ez du eduki gehikuntza bat suposatzen. Hauekiko etengabeko sentsibilitatea mantenduaz, garaian garaiko gaien lanketan sortzen diren egoera eta testuinguruak aprobetxatuz, era esplizitoan lantzen badira ere, proposamenaren kontzeptzio eta filosofia osoa bustitzen duten balio eta jarrera gisa azaltzen zaizkigu TXANELA proiektuan.

Hauetaz gain, edota hauen osagarri modura, balio eta jarrera hauen adierazpenerako lagungarri diren hainbat TREBETASUN sozial ere lantzen direlarik.

Eduki hauek, interesgunean espezifikoki lantzen direnak alegia, maila bakoitzari dagokion zehaztapenean (ikus koadroa) eta baita unitate didaktiko bakoitzeko sarrerako analisi pedagogikoan era esplizitoan adierazten dira. (ikus koadroan lehen mailako lagarren unitateari dagokion laburpena ).

## **TXANELA PROIEKTUA. 1. maila**

### **Zehar lerroekiko loturak**

(adibide modura 4. unitate didaktikoari dagokiona)

Giza eskubidea, harremanak  
eta Bake Hezkuntza

Kontsumorako hezkuntza

Gizarte-komunikabide Hezkuntza

Osasun Hezkuntza

Bide-Hezkuntza.

Hezkidetza  
hezkuntza.

Ingurumenaren kontserbaziorako

1.u.d	x		x					
2.u.d.							x	
3.u.d.			x	x	x			
4.u.d.	x							10. jarduera: Guztiok gara desberdinak.  17. jarduera: Nola elikatu behar dugu osasuntsu egoteko. 17.1 jarduera: Denetik jan behar dugu. Litxarkeri gutxi. 18. jarduera: Otorduak 20. jarduera: Nola zaindu behar dugu gure gorputza? 21. jarduera: Garbitasuna. 21.1. jarduera: Zorriak.  10.jarduera: Guztiok gara desberdinak. 10.1. jarduera: Olerkia. Ni bezalakoak. (arrazak) 22. jarduera: hausnarketa: Gosea munduan. Beste herrien eskubideak. 22.1.jarduera: Berria. Gosea munduan. 23. jarduera: Zu kazetaria: Zer berri zabaldu nahi zenuke? 27. jarduera: Heriotzaren inguruko hausnarketa.  22. jarduera: hausnarketa: Gosea munduan. Beste herrien eskubideak.
5.u.d.	x	x	x					
6.u.d.			x					
7.u.d.		x	x			x	x	
8.u.d.								


### 3.5. Curriculumaren euskal dimentsioarekin zerikusia duten edukiak.

TXANELA proiektua Euskal Herrian sortutako proiektua da eta bere ezaugarrien artean EUSKAL KULTUR ONDAREA gorde eta luzatzeko konpromezua beregain hartu izana aurki dezakegu. Zehar lerroen antzera, curriculumaren trataera honek, ez du eduki gehikuntza bat suposatzen, edukien aukeraketan sistematikoki euskal izaera dutenen presentzia bermatzearen aldeko apustua baizik. Eduki hauek testuinguru esanguratsuetan txertatuaz, haurrek euskal kulturaren erreferentziak etengabe jasoko dituztelarik. Eduki hauek era honetara sailkatu dira TXANELA proiektuan:

- Hizkuntza eta Literatura
- Ingurumena
- Arte Plastikoak
- Musika eta gorputz motrizitatea.

(Adibide modura 4. unitate didaktikoa osatu da)

Hizkuntza eta Literatura



1.u.d	X			X	
2.u.d.	X	X		X	
3.u.d.	X	X	X	X	
4.u.d.	X				2.1. jarduera: BERTSOA. Mikel Mendizabal. 6.1 jarduera: Bertsoa. Joxan Ormazabal 7.4 jarduera: Igarkizunak 10.1 jarduera: Olerkia. Juan K. Igerabide. 10.2 jarduera: Tradiziozko ipuina: Barbantxo. 11.2 jarduera: Olerkia. Jovxan Ormazabal. 13.1 jarduera: Olerkia. Joxan Ormazabal 13.3 jarduera: Ipuina. Mitxel Murua. 15. jarduera: Olerkia. Joxan Ormazabal. 17.1. jarduera: Bertsoa osatu. Mikel Mendizabal. 18.1 jarduera: Igarkizunak. 27.2 jarduera. Ipuina. Mitxel Murua  25.1 jarduera: Bideoa. Trikuharriak Euskal Herrian. 27. jarduera: Vianako (Nafarroako) Longarreko Hipogeo. 27.1 jarduera: Trikuharriei bisita.  X 2.1.jarduera: "Triste bizi naiz eta" doinua. 7. jarduera: Tradiziozko abestia: Xoxoak galdu du burua. Beste abestiak.
5.u.d.	X	X		X	
6.u.d.	X	X		X	
7.u.d.	X		X	X	
8.u.d.	X			X	

Euskal kulturaren elementu bereziak sistematikoki landu eta esplizituki adierazten dira ikasmaterialetan. Haurrak bere inguruko agerpen kulturekiko interesa eta errespetuzko jarrera garatu dezan, interesgune eta testuingurura ekarrita, tradiziozko abestiak, olerkiak, esaera zaharrak, euskal artistek egindako hainbat lan plastiko eta musikalak, egungo literaturaren eta tradiziozko literaturaren adierazleak, musika, dantza, festak, kirola, mitologia... eskaintzen dira.




## 4. Irizpide metodologikoak

### 4.1. Globalizazioa

TXANELA proiektuan, GLOBALIZAZIOAREN irizpidea aplikatzearen aldeko apustu metodologikoa egin da Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklorako.

Esan bezala, Haur Hezkuntzako eremuei emandako trataerari jarraipena emanez, eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko haurren ezaugarriak kontutan hartuta, TXANELA proiektuan curriculumaren hainbat arlo era globalizatuan lantzeko proposamena luzatzen da. Arlo hauek, Hizkuntzak (euskara, gaztelania, zein ingelesa), Ingurunea eta Arte Hezkuntza (dramatizazioa, musika, plastika...) eta matematika lirateke.

Matematika arloan ere testuinguru jakin batean naturaltasunez txerta daitezkeen edukien lanketa- proiektuko unitate didaktiko globalizatuekin erabat loturik aurkezten da. Egiten den proposamen osoaren haria eta baita hainbat kontzeptu eta prozeduren lanketa – proiektua osatzen duten beste euskarrietan lantzen diren gaiekin erlazionaturik dago.



### 4.2. Ikuspegi eraikitzailea.

#### Ikasgelaren kudeaketa. Taldekatzeak eta elkarrekintza.

Aurreko atalean adierazi denaren ildotik, unitateen interesgunearen inguruko garapen globalean oinarrituz, gaiak eta honen inguruko testuek sortzen dituzten testuinguruak (haurren bizipenek eta beharrak barne) erabiltzen dira TXANELA proiektuan proposamenari zentzua emateko. Haurraren globaltasuna, alderdi afektiboaren, kognitiboaren eta somatikoaren elkarketa bezala kontsideratzen baita.

Lehen ziklo honetan haurraren afektibitatea eta emozionaltasuna oso garrantzitsuak dira eta Txanela proiektuan, alderdi hauek zaintzeko ELKARREKINTZA estiloa bai eta hauekin erlazioa duten hainbat jarduera proposatzen dira.

Aipatu elkarrekintzaren muina, “haurra entzutean” datza. Etengabe aktibatzen dira haurra espresatzeko aukerak eta honen adierazpenak lanaren ildoan oinarritzeko kontutan hartuz bultzatzen du proiektuak. Haurren hipotesiak, sentipenak, iritziak e.a. elkarjartzeari eta dagokion balioa emanaz garatzen dira TXANELA proiektuko proposamenak.

Bestez, emaitza berari baino, prozesuei garrantzia ematearen ideia etengabe azpimarratzen da TXANELA proiektuan. Prozesua ematen ari den unean sortzen den aprendizaiari egiten zaio so. Zenbaitetan prozesua bera da helburua. Adin hauetan, haurrak bere autonomia, bere kuriositatea, iritzi trukaketa, ekimena e.a. garatzea beste hainbat eduki bezain edo garrantzizkoagotzat jotzen da TXANELA proiektuan.

Ikasgelaren kudeaketa oinarritzeko aldagai metodologikoa da. Kudeatzeko erak haurren gaitasunen garapena bultzatu nahiz eragotzi edo atzeratu baitezake.

TXANELA proiektuan, URTXINTXA proiektuan bezala, garrantzi handia ematen zaio ikaslea eta irakaslearen, nahiz ikasleen arteko elkarrekintzari. Adin hauetan, eta baita aurrerago ere, interakzio hauen kalitatea bilakatzen baita aldagai nagusienetakoa. Hezkuntza helburuek, ikasketa edukiek, ebaluazio sistemek porrot egin dezakete aldagai hau behar bezala bideratzen ez bada.

Elkarrekintza TXANELA proiektuan, jarduera bakoitzaren deskribapenean proposatuko da eta taldekatzearen nondik norakoak ere txertatuko dira. Aldagai honi dagokionez, berdinen arteko kooperazioari merezi duen erreta eskaini nahi zaio TXANELA proiektuan.

Taldekatze mota hauek proposatzen dira jardueren deskribapenetan:

(TH) TALDE HANDIA. Jarduera edo honen zati bat, gelako haur guztiek batera burutzen dutenean.

(tt) TALDE TXIKIA. Jarduera edo honen zati bat burutzeko 3,edo 4 ikasleek osaturiko taldeetan banatzen denean gela.

(binaka) BINAKA. Jarduera edo honen zati bat burutzeko bi haurren artean burutzen dutenean.

(B) BANAKA. Jarduera edo honen zati bat haurrek banaka burutzen duenean.

Kooperazio hau era askotan azal daiteke eta egoeraren arabera era batera edo bestera bideratzea komeni da. Egoeraren eta landu nahi diren edukien arabera eta haurren ezaugarriak kontuan hartuta (haurren berdintasun/desberdintasun mailak, rolak e.a.) hainbat izaeratako taldeak sor daitezke (kooperatiboak, leihakorrak, tutoritzakoak e.a.) Bestalde garrantzitsua da talde hauen barne dinamika behatzea eta bideratzea bertan hainbat prozesu psikologiko atzeman baitaitezke:

. Bestea erreferentzia gisa hartzea. Ikasleek ez dute heldua bakarrik imitatzen. Bere kideek egiten dutena eredu bezala hartuz ere ikasten dute.

. Ikuspuntuak aurrez aurre jartzea.

. Rolak banatzea.

. Aurrera egiteko konpartitzea.

Hainbat heziketa lan daude talde lanerako egokiak eta TXANELA proiektuan, jarduerak taldekatze proposamen batekin aurkezten dira, betiere, irakaslearen esku geratzen delarik proposamenaren egokitasuna baloratzea eta gelako egoerara moldatzea.

Bestez, arrazonamendu aktiboa bultzatzeko asmoz, era sistematikoan problemen ebazpenerako IDEAL prozedura eta hizkuntzaren funtzioen aktibazioa landuko dira TOUGH-en hizkuntza funtzioen sailkapenaren bidez.

Beste batzuen artean, aurrera egiteko konpartitzearen eredu bat, TXANELA proiektuan txertaturiko ELKARTASUNEZKO JOLASEN proposamena litzateke.

*Elkartasunezko jolasen proposamenaren, nondik norakoak.*

*Jolasa gizakiaren garapenerako ezinbesteko bizi ekintza da. Haurren ekintza ludikoetan hainbat prozesu sozial, emozional eta kognitibo aktibatzen dira eta prozesu hauek zuzenki erlazionaturik daude haurren garapen global eta integralarekin.*

*TXANELA proiektuaren helburu nagusia ikaslearen garapen integrala (garapen motorea, kognitiboa, komunikatiboa, afektiboa eta gizarteratzekoa) izanik, garrantzi berezia eman nahi izan zaio hezkuntza kooperatiboari, proiektuaren garapenean zehar irizpide hau indartzeko hainbat eta hainbat eratako proposamenak txertatu direlarik. Proposamen hauen artean kokatzen dira ELKARTASUNEZKO JOLASAK.*

*Maite Garaigordobil irakasleak proposatzen dituen jolasak aztertu (“Juego Cooperativo y socialización en el aula” Seco Olea Ediciones) eta gaien sekuentziari egokitzuz txertatua izan da aipatu programa.*

*Programa honen xedea honoko hau litzateke:*

*-Haurren garapen integrala eta bereziki dimentsio sozio-afektiboa potentziatzea, normaltasunez aurreratzen dutenena zein garapenean zailtasunak (ikasketetarako heldutasun falta, autokontzeptu urria...) eta bere kideekin harremanetan arazoak (lotsatiak, agresiboak, lagunengandik baztertuak...) dituzten ikasleena.*

*Taldean elkarrekintza kooperatiboa bultzatuz, haurren jarrera gizatiarra, garapen emozionala eta sormena sustatuz, beste kideekin batera lan egitea helburu bakar eta bera lortzeko eta, indibidualismoan eta konpetitibitatean oinarritutako hezkuntza eredua saihestuaz.*

*Jolas hauekin helburuak hauexek lirateke:*

*-Ikasleen arteko ezagutza handitzea, talde kide guztien autobaieztapena estimulatuz.*

*-Interakzio sozial baikorra, adiskidetsua, eraikitzailea... handitzea, taldeko kide izatearen sentimendua estimulatzea.*

*-Sozializazioa hobetzeko jokabide egokien garapena handitzea, ekimena, laguntasuna, arau sozialekiko errespetua... jokabide agresiboa, lotsatia, edo apatiazkoa gutxituz.*

*-Talde barruan hitzen bidezko zein hitzik gabeko komunikazioa hobetzeaz gain, entzumen aktiboa ere hobetzea.*

*-Taldekoen arteko laguntza harremanak hobetu, taldean kooperatzeko gaitasuna hobetzea, jokabide prosoziala hobetzea, alegia.*

*-Taldeko kideen adierazpen integrala sustatzea eta bultzatzea (sentimenduak, emozioak, pentsamenduak, desioak, beldurrak,...)*

*-Autoirudia eta autokontzeptuaren hobekuntza erraztea.*

*Jolas hauen ezaugarriak bost osagaitan bil daitezke:*

*-Parte hartzea: Denek hartzen dute parte momentu oro eta ez dago ez eliminaturik ezta galtzailerik ere. Eliminaziorik ez dagoenez, hain abilak ez diren ikasleek aukera dute euren trebeziak hobetzeko eta esperientzia handitzeko.*

*-Onarpena: Ikasle bakoitzak jokatzeko duenean esanahiaz beteriko rola izango du, onartuko duen rola eta besteek ere onartu beharko dutena. Jokalariak elementuen kontra jokatzeko dute, ez kideen kontra. Kidea kooperazio lagun bezala ikusten dute eta modu honetan, huts egiteari beldurra kenduko diote eta porrotaren ideia uxatu, helburua ez delako irabaztea.*

*-Kooperazioa: Ikasleek elkarri lagunduko diote momentu oro, talde bezala jolasaren helburua betetzeko asmoz, euren esfortzua batuz eta trebezia ezberdinak konbinatuz helburu komun bat lortzeko.*

*-Fikzioa: Beti jolasten baitugu errealitateko zerbait bagina bezala "... izatera" edo "...izango bagina bezala".*

*-Dibertsioa: Era adiskidetsuan eta eraikitzailean interaktuatzean, ikasleen dibertsioa ziurtatuta dagoelako.*

*Jolas bakoitzaren ekintzak estimulatzen duen garapenaren edukiaren arabera sei mailetan sailkatuak daude:*

*-Aurkezpenekoak. Talde ezagutza*

*-Hitzen bidezko eta hitzik gabeko komunikaziozkoak. Taldeko komunikazioa estimulatu, entzumen aktiboa hobetu.*

*-Konfiantzazkoak. Besteenganako eta norberaren buruarenganako konfidantza handitu.*

*-Laguntza hartu eta ematekoa. Behaketa gaitasuna hobetu, besteen beharrez jabetu eta baikorki erantzun.*

*-Kooperaziozkoak. Parte hartu, elkar onartu, kooperatu, kolaboratu...*

*-Adierazpen dramatikoak. Rol ezberdinen adierazpenaren bidez norberaren emozioak adierazten ikasi. Autoadierazpenaren bidea.*

*Lehen Zikloan, elkertasunezko 30 jolas proposatzen dira bi mailetan banaturik. Unitatean zehar azalduko da proposamena eta bertan adierazten zein mailetako jolasa den.*

*Gaitasun guztien garapena ziurtatu nahian, maila guztietako jolasak proposatu dira, dena den, jolasen programa honek eraginkortasuna izan dezan, komenigarria litzateke, gai bakoitzean aurkezten diren jolasez gain, saio bakoitzean aurreko gaietan jolastutakoak ere, behaketaren bidez talde bakoitzaren beharrezanaren arabera, bat edo beste berreskuratzea eta jolastea.*

*Jolas saio bakoitza hiru fasetan antolatzen da:*

*-Sarrera: Korruan eserita jolas kooperatiboen oinarrizko ideia eta helburua birgogoratuko dira (adiskidetsuki jolastea, elkar laguntzea, kooperatzea...) eta honen ostean, jokatu den jolasaren azalpena emango da.*

*-Garapena: Jolasa azaldu eta jokatzeko.*

*-Berbalizazio-reflexioa: Borobilean jezarrita, esperientziari buruz hitz egingo da, sentimenduak, zailtasunak, sortu diren arazoak, kooperazioak dituen onurak, etab. aipatuz. Era honetan, ziklo bukaeran ikasleek autoebaluazio eta autokritikarako gaitasuna garatuko dute.*

#### **4.3. JARDUEREN AUKERAKETARAKO IRIZPIDEAK**

TXANELA proiektuan gelan nahiz gelaz kanpo burutu daitezke irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak. Jardueren eginkizuna bide izatearena da, hau da, jardueren bidez haurrak gaitasunak lantzen ditu, edukiak jasotzeko ahaleginetan.

Ikuspegi honetatik, jarduerak antolatzerakoan irizpide nagusi hauek izan dira kontuan:

- Baliagarritasuna
- Esanguratasuna
- Funtzionaltasuna

Irizpide hauen ondorioz, hauek dira TXANELA proiektuko jarduerak dituzten ezaugarri batzuk:

- 1.- Ikasleen garapen maila errespetatzen dute eta erantzun anitzak onartzearen aldeko proposamenak egiten dira askotan dira askotan.
- 2.- Ikasketa esanguratsuak sustatzen dira. Haurren bizitzarekin, esperientziekin eta interesekin harremana duten jarduerak diseinatu dira.
- 3.-Aprendizaiaren eraikuntza autonomoa sustatzen da. Hau da, “ikasten ikastea” bultzatzen da, metakognizioa (IDEAL, TOUGH ...) garatzeko interakzioak proposatuz.
- 4.- Aktibitate mental jarraia eta tinkoa sustatzen da, hipotesien jaurtiketa eta hainbat ikerketa eta esperimentazio jarduerak proposatuz.
- 5.-Gelatik kanpo ahalik eta testuinguratzeko handiena bilatzen da.
- 6.-Hainbat eduki mota elkar erlazionatzeko proposamenak egiten dira, beren ulerkuntza esanguratsua bermatzeko.

7.- Ekintza eta jolasaren garrantzia kontuan hartzen da. Ikerketazko eta izaera ludikoa duten jardueraz hornituz.

8.-Adin hauean ikasteko edukiek adinako garrantzia du haurraren inguruan sortzen den giroak, haurraren motibazioa eta ekimena zaintzeak, irakaslearekin eta bere kideekin sortzen dinamikak e.a eta ondorioz, dinamikak eta interbentzioaren nondik norakoak hein handi batean deskribatzen ditu TXANELA proiektuak.

#### **4.4. Denbora**

Baliabideen deskribapenean aipatu bezala, TXANELA proiektuko Lehen Zikloan, maila bakoitzeko 8 unitate didaktiko aurkezten dira, ikasturtean zehar banaketa era honetan bideratzen delarik: irailetik abendura bitartean lehen hiru unitateak landu beharko lirateke; azken bost unitateak berriz, bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan zehar banatzekoak lirateke dagokion ikasturtearen egutegiaren arabera.

Lehen eta azken unitateak izaera berezia dute bi ikas mailetan: lehenak ikasturte berriari ekingo dio beste hainbat gai lantzen diren artean eta azkenak, ikasturtean edota zikloan zehar eginiko ibilbidearen berrikusketa eta sintesi moduko proposamena eskaintzen du.

Denbora aipatzen denean, nola nahi ere, jarduera kopuruari aipu egitea beharrezkoa da; hau da, TXANELA proiektuan (gida mailan batez ere) denboralizazio honetan aurrera eraman daitekeen baino jarduera kopuru handiagoa proposatzen da, proiektuaren asmoa ez baita talde eta ikastetxe guztientzat ibilbide bakar eta mugatua finkatzea. Unitatearen ardatz diren gaien inguruan aukera didaktiko sorta eskaintzea baizik, irakasle, irakasle-talde eta ikastolek, lekuan lekuko egokitzapen, aportazio eta aukeraketak egin ditzaten oinarrizko baliabidea eskaintzea, alegia.

Aukeraketa egiteko, taldearen eta bertako norbanakoen abiapuntua kontutan harturik, jardueren bidez lantzen diren helburuak izango lirateke irizpide nagusia.

#### **4.5. Espazioa**

TXANELA proiektuan hezkuntza/ikaskuntza prozesua garatzeko espazioak ez dira ikasgelara mugatzen. Aldagai honi dagokionez ere, ikastola bakoitzak bere giza baliabideak eta espaziozkoak, baita bere ingurumena azterturik eman behar lioke erantzun nagusia.

Nola nahi ere, proiektuak hainbat iradokizun eskaini nahi ditu garrantzia duen aldagai honi buruz ere:

-Ohiko ikasgela.

Adinari dagokionean, nahiz talde homogeen, nahiz talde heterogeen osatutako ikasgela finkoa bada praktikaren gunea, eta maiztasun eta funtzionaltasun handi batez ikastetxeko beste hainbat espazioren erabilera ezinezkoa edo deserosoa bada (liburutegia, tailer desberdinak, ordenadore gelak...) ziklo honetan ahalik eta espazio zabalena (muga batzuen barruan) izan dadin eskatzea komenigarria da.

Gela honen espazio banatzeko orduan ere, zeregin zehatzak garatu ahal izateko gune edo txokoak sortzea beharrezkoa izan daiteke. Gune edo txoko iraunkorrak batetik (liburutegia, eraikuntza txokoa, plastika txokoa...), era jarraian erabili behar diren baliabideak edukitzeko, egin behar diren esperientziak e.a. egiteko; eta dinamikoak bestetik, dagokion zereginak hala eskatzen duelako edota proiektuak eta gelaren dinamika dokumentazio eta ikerketa jakinetarako beharra sortarazten duelako. Txoko honi TXANELA proiektuan TXOKO ZURIA izena jarri diogu.

- Ikasgela tematikoak:

Ohiko gelan, espaziotsua izanda ere, ezinezko da era guztietako baliabideak edukitzea. Horretaz gain, batetik, baliabideen optimizazioa bilatzea heziketa balore bat ere bilakatu beharko litzateke eta bestetik, gune konpartituak (mailako, zikloko, etapako edota etapa desberdinetako gelen artean) ere badute bere ikuspegi hezitzailea (mantenua, ardura, garbitasuna, zainketa, besteen lanak ikusi ahal izatea...). Beraz, TXANELA proiektuan, ikastetxe edo herri osoari dagozkion hainbat espazioen erabilera ere bultzatzen da.

- Ikastetxe osoa ikasgela:

Praktika honek ohiko taldekatzeak neurri batean edo bestean haustea eskatuko luke eta lantzen ari diren unitate didaktikoen planifikazioan, irakasle taldeak hausnartu beharko luke zein eratan inplika zitezkeen ikastetxean dauden adin desberdinetako taldeak proiektu jakin baten garapenean edota aurkezpenean. Honi dagokionean, TXANELA proiektuaren ekarpena iradokizun xume batzuetara mugatzen da.

- Ikastetxearen sarguneak, pasiloak eta nola ez, kanpoko guneak:

Hainbat zeregin gauzatzeko TXANELA proiektuan geletatik kanpoko espazioen erabilera bultzatzen da: gela barruko espazioen mugak gaindi ahal izateko; egindako lanak beste gela edo mailetako ikasleekin konpartitzeko (galdeketak, erakusketak, jolas-leihaketak...)

- Ikastetxetik kanpoko espazioak:

TXANELA proiektuak etengabe iradokitzen ditu ikastetxe barrutitik kanpo egin beharko liratekeen jarduerak. Ingurumenaren behaketa zuzena bideratu asmoz, gozatu asmoz, museo eta dokumentazio zentroak ikusi asmoz, herri edo hiriko zerbitzuak zuzenean ezagutu eta erabili asmoz.... Eta jarduera hauek guztiak sekuentzia tematikoan txertaturik azaltzen dira, egin aurreko baldintza eta aholkuekin eta baita egin ondoren dagokion hausnarketa, balorazio edota aplikazioarekin.

#### **4.6. Beste baliabideen ustiaketa**

TXANELA proiektuan berak eskaintzen dituen baliabideez gain; garrantzia ematen zaio beste eratako baliabideen ustiaketari: prentsa, interesguneen inguruko informazioa lortzeko baliabideak (liburu, entziklopedia, bideo, irrati, TV....gurasoen, familiakoen, lagunena, auzokoen azalpen eta kontakizunak...). Espazioaren erabilerari buruzko azalpenean adierazten den bezala, baita ikastetxeko leku desberdinetan aurki daitezkeen baliabideak ustiatzeko proposamenak ere bideratzen dira (gelako nahiz ikastolako liburutegia, gimnasioa, psikomotrizitate gela...)

#### **4.8. Gurasoekiko harremanak.**

Haur Hezkuntzako URTXINTXA proiektuan irekitako bidetik jarraituaz, TXANELA proiektuan ere garrantzi handia ematen zaio haur, irakasle eta gurasoen arteko harremanari.

Haurren apendizaiaren beren eguneroko bizitzan sustraituta dago, beren esperientzia eta bizipenetan sustraituta. Eskolan eta eskolatik kanpo egiten duten guztia elkar erlazionaturik dago, eta bi eremu horietan egiten duenak garrantzi handia du bere heziketarako.

Gurasoak eta irakasleak kontziente dira, bi ekintza hezitzaile hauek osagarriak direla eta izan behar dutela. Gurasoen inplikazioa eta partaidetza beraz, oso garrantzitsua da. Haurraren oso eragin baikorra sortzen dute eskola eta familiaren heziketaren arteko jarraipena bermatzen da.

Gurasoen erlazioa baikorra izan dadin, lehenik haurra hezi eta estimulatzeko era asko daudela kontuan hartu behar da. Beraz, gurasoen kolaborazioak ez du esan nahi, derrigorrez, beraien jokabidea edo haurraren erlazionatzeko duten estiloa aldatu nahi izatea. Ideia nagusia zera da: haur bati dagokionez, guztiek ikasi dezaketela erlazio horretan, hezitzaileak gurasoengandik eta gurasoek hezitzailearengandik. Epaiketetatik aldeni beharra dago.

Era asko daude gurasoen partaidetza antolatu eta martxan jartzeko. Garrantzitsua hori egitea da, eta ez anekdotikoki, era antolatu eta planifikatu batean baizik.

TXANELA proiektuak harreman horri bultzadaxo bat eman asmoz eta ikastetxe bakoitzak dituen ohituren osagarri modura, hainbat tresna sortu ditu.

Txanela proiektuan gurasoekiko harremana bi zutabe hauen inguruan eraikitzen da: INFORMAZIOA eta ELKAR LANA.

Informazioari dagokionez, hiruhilabete bakoitzaren hasieran, epe horretan zehar landuko diren eduki nagusiei buruzko txostentxoak eskaintzen da irakaslearen gidan gurasoei helarazteko formatuan (pertsonaien gutuna, edukien deskribapena). Bestez unitate bakoitzaren garapenerako ELKARLANA (gaia garatu ahal izateko informazio liburuak, afitxak, argazkiak..., haurren bizipenen berri edukitzeko eskutitzatxoak...) eskatzeaz batera, gurasoek une horretan gelan lantzen ari direnaren berri jasotzen dute.

Proposamen hauek erabiltzerakoan, lehentasuna du bai haurrek eta bai gurasoek beren mailan aporta dezaketena oso baloratuta dela jakin dezaten, ekarpena nolana hikoia



izanda ere. Gauza sinpleena konpartitzea baliagarria izan daiteke haurraren bizipenarekin erlazioa badu.

Halere, egoera pertsonal-sozio-ekonomiko-kultural desberdinetan gurasoen partaidetza eta erantzuna ez da berdina izango, baina, garrantzi handia eman behar zaio hauen inplikazioa erraztu eta bideratzeari.

Bestalde, arreta berezia eskaini behar zaie euskaraz ez dakiten edota jakinda alfabetatu gabeak diren gurasoei, bakoitzak bere moduan (gaztelaniaz, frantsesez, edota bere euskaraz) gutunak e.a. idatz ditzaten, hezitzailearen aldetik ortografiari e.a. hainbeste garrantzi eman gabe.

Testuinguru guztiek dute zer edo zer eskaintzeko eta zaitasunak zailtasun, irakaslearen abileziaren esku egongo da harreman horrek eman dezakeenari etekina ateratzea, merezi du eta.

*(Eranskina 1: Hizkuntza arloak, globalizazioaren koadroan ikus daitekeen bezala, hartzen duen garrantzia dela eta, hona aipatu arloaren trataeraren laburpena.)*

## **HIZKUNTZA ARLOAREN TRATAERA**

### **ARDATZ METODOLOGIKOAK**

#### **PROIEKTU CURRICULARRAREN HIZKUNTZAREN KONTZEPTZIOA: ERAIKUNTZA SOZIALA, KOMUNIKAZIOAN GARATUA.**

##### **MARKO OROKORRA**

Hizkuntza komunikazio tresna bezala ikusten da TXANELA proiektuan, giza ekintza bezala, egoera desberdinetan eta funtzio desberdinetarako erabiliz eraikitzen dena. Hizkuntzaren garapenerako oinarriak, hizkuntza beraren erabilera esanguratsua eta erabilera horri buruzko hausnarketa izango dira.


Komunikazio horrek hainbat baldintza bete beharko ditu hizkuntzaren jabekuntza bideratu ahal izateko:

1. **Komunikazio testuinguru aberatsa.** Gela barruko eduki eta harremanen inguru mugatua gaingituz, ahalik eta bizitzako eremu guztietako esperientziak eskaini behar dira.
2. **Hizkuntzaren erabilera esanguratsua.** Proposatutako ekintzen funtzionaltasuna, ikasleen behar eta interesekiko lotura, hizkuntzaren egiazko tresna izaera ziurtatu behar dira batetik. Bestetik, ikasketa prozesuarekiko koherentzia, hau da, jasotako 'input'-aren eta produzitu beharreko 'output'-aren bideragarritasuna ere ziurtatzea ezinbestekoa da.


Testu inguru aberats horietatik sortutako hizkuntz erabilera esanguratsuen trataeran, honako hiru ardatzen inguruan garatuko da ikaste-irakaste prozesuan:

- **Kalitateko elkarreragina.** Hizkuntza eraikuntza soziala da; irakasle-ikasleek elkarrekin eraikitako testuinguruak, “partekatutako esparruak” (Artigal), ematen die esanahia hizkuntza formei. Beraz, elkarrekintza horren kalitateak garrantzi berezia du hizkuntzaren jabekuntza prozesuan eta kalitate hau bi esparrutan ziurtatu beharko dugu: harreman afektiboetan eta komunikazio ekintza eta jardueren egituraketa zehatz eta egokian. Arestian aipatutako taldekatze eta ikasgelaren kudeaketa ezaugarriek bideratuko dute ardatz hau.
- **Estrategien garapena.** Hizkuntzen eraikitze prozesua ez da arau eta elementu linguistiko multzo baten ezagutzan oinarritzen baizik eta komunikazio estrategia eta estrategia kognitibo konplexuen garapenean. Ulermen eta ekoizpen estrategien lanketan oinarritu beharko litzateke hizkuntzaren inguruko lana.
- **Hizkuntzaren gainean, hausnarketa.** Hizkuntzaren sistema formalaren lorpenerako, komunikazio egoera askotarikoetan sortutako hizkuntz datuak identifikatu, erlazionatu, antolatu, eta sistema hori agerrarazi egin behar da. Eskolaren erabilera baldintza mugatuetan garrantzi berezia hartzen du gaitasun

metalinguistikoen garapenak. Erabileraren inguruko hausnarketa, hizkuntzaren bidez egiten dugun horretan sortutako forma eta erregelen inguruko gogoeta funtzionala, erabilera hori hobetzeko bide garrantzitsua izango da.



Beraz, komunikazioa izango da irakaskuntza-ikaskuntzaren estrategia nagusia eta ondorioz, lan eduki nagusiak giza-erabilera desberdinak izango dira: (pertsonarteko harremanak, literatura, ikaskuntza, komunikabideak, instituzioekiko harremanak). Erabilera horietatik sortutako testuen lanketan eta komunikazio ekintzaren inguruko hausnarketan gauzatuko dira bai hizkuntz trebezia nagusien garapena, bai gramatikaren lanketa eta hizkuntz sistemaren kontzeptualizazioa.



Marko komun honen barruan garatuko da TXANELA proiektua. Lehen Hezkuntza osoko eta ziklo desberdinetako proposamenak, adin bakoitzari dagozkion hizkuntz beharren arabera definitu eta sekuentzializatuko direlarik aipatutako giza erabilerak.

Eta marko honen barruan kokatuko dira ere curriculumeko hizkuntza desberdinak, erabilera eremu horiek hizkuntza bakoitzari dagokion komunikazio testuinguruaren arabera egokituz. TXANELA proiektua, proiektu eleaniztuna da, hizkuntz desberdinen curriculum integratua suposatzen duena. Curriculum integratu hau hizkuntzen interdependentzia printzipioan oinarritzen da (Cummins, 1979): Hizkuntza batean lortutako gaitasunak, beste hizkuntzetara transferitu egiten dira, baldin eta beste hizkuntza horietan komunikazio aukerak eta motibazioa ematen badira behintzat.

Beraz, globalizatuta eskainiko ditugun gaztelania edo eta ingelerazko proposamenak deskribatutako hizkuntza ikuspegian eta ardatz pedagogikoetan oinarrituko dira ere. Hizkuntzen artean komunak izan daitezkeen edukien aldetik, apendizaiia prozesu sistematikoa euskaraz egingo da, beste hizkuntzetan apendizaiia horien transferentzia eta generalizazioa egiteko aukera emango duten esperientziak eskainiko direlarik.

## AHO HIZKUNTZA

*“Hizkuntza beste edozer gauzaren gaineratik, besteekin komunikatzeko era sistematiko bat da, bestearen eta norberaren ekintzak bideratzeko, elkarren arreta suspertzeko, ekintzak eragiteko...”*

Jerome Bruner, *“El habla del niño: aprendiendo a usar el lenguaje”*.

Ikuspegi komunikatiboa ardatz, Lehen Hezkuntzko praktikan aho hizkuntza (baita idatzia ere zenbaitetan), zehar lerro modura trata dezakegu. Hau da, uneoro edozein arloren lanketan erabiltzen den tresna beikularra dugu. Hizkuntzaren erabilpen etengabe hau, aztertu eta antolatu, eta tokian tokiko egokitzapenak eginez, HIZKUNTZA arloaren hainbat eta hainbat eduki bideratzen dira (nahiz kontzeptuzkoak, nahiz prozedurazkoak, nahiz jarrerazkoak).

Hizkuntzaren ikuspegi interaktiboak gidatzen du TXANELAren lan proposamena arlo honetan. Hizkuntza, elkar ekintzan erabiliz, besteekin gauzak egiteko erabiliz, ikasten da. Hizkuntzaren gramatika elementuak ez dira era abstraktuan garatzen, alderantziz, esanahia duten neurrian, konpartitutako ekintzen testuinguruan txertatuta agertzen direnean bakarrik jasotzen ditu haurrak.

Ikuspegi honen ondorioz, hainbat testuinguru eta egoera biziak eta komunikazio mailan ahalik eta aberatsenak eskainiz ziurtatu nahi izan da hizkuntzaren garapena. Ikaslearen produkzioak beraz, ahalik eta naturalena eta eguneroko bizitzarekin eta interesekin lotuena behar du izan; baina aldi berean irakaslearen lanak ere oso esplizitua, kontzientea, intenzionala eta sistematizatua izan behar du.

TXANELA proiektuan, hiru esparru nagusitan garatzen da ahozko hizkuntza lantzeko proposamena:

### *1. Gelako eguneroko bizitza.*

Hizkuntzak zehar lerro trataera garbia du: gelako edozein ekintza eta gertaeratan hizkuntzaren lanketa bideratzen da. Taldearen bizitzako egunero errutinen esparruan hizkuntzaren garapenerako gune aberatsa dugu: denbora-espazioaren antolaketa, lanaren banaketa eta antolaketa, harreman arruntan garapena. Eguneroko errutina hauek ritualizatuz eta ondo egituratuz, oinarrizko hizkuntza egiturak ziurtatzen dira.

Ikus dezagun bada, eguneroko bizitzan era erritualizatuan hizkuntza lantzeko aukerak eskaintzen dizkigun hainbat egoeren zerrenda:

- Agurrak: sarrera, irteera, norbait gelara sartzen denean...
- Berandu etorri/ lehenago atera/ ez etorri, norbait falta da.
- Mantala/berokia jantzi/erantzi.
- Joateko ordua (atsedenaldira, gelara, etxera).
- Hamaiketakoa/bazkal orduak \* eguraldia.
- Errepikazten diren lanak: ipuina, elkarrizketa...
- Txokotan banatzea, lan-koaderno hartzea...
- Materialaren banaketa, jasotzea: erabilkera eta gordetzea.
- Gelako gauzak (ipuina, ohar...) etxera eramatea.
- Ekarritakoak erakustea.
- Norberaren gauzen berri ematea.

- Urtebetetzeak: zorionak eman, eskerrak eman...
- Laguntza eskatzea.
- Garbiketa (gorputza, eskuak, mukiak, paperak botatzea, mahaiak..)
- Nahiak eta beharrak (pixa, kaka, ura, jostailuak...)
- Galderak: zer? Zergatik? Zertarako?
- Zikindu edo bustitzen direnean.
- Borrokak eta barkamenak.
- Gaixorik egotea.
- Mina hartzea...

2. *Ezagutzen eraikuntza.* Txanelaren ikuspegi eraikitzailearen arabera apendizaiaren zeregin soziala da, elkarrekin eraikitzen da. Kontzeptu berriak barnertzeko, haiek jasotzea eta errepikatzea ez da nahikoa, berbalizatu egin behar ditugu, gure hitzetan jarri, beste norbaitekin konfrontatu: ezagutzak elaboratzeko gure kideekin eta gure baina gehiago dakiten horiekin hitz egin behar da. Irakaskuntza prozesu osoan, ahozkoasuna giltzarri da. Txanelak informazio diskurtsoaren inguruko ahozko testu generoen tratuera bideratuko du, bereziki jardura bakoitzaren hizkuntza eskakizunak kontuan hartuz jardueraren prozedurak garatzeko unean.

*.- Taldeko elkarrizketa.*

Haurrak helduarekiko elkarrizketan du hizkuntzaren garapenerako tresna nagusia. Eskola giroan, elkarrizketa hori nahi baino gehiagotan talde mailan garatzen da. Taldeko elkarrizketa horri garrantzi handia ematen zaio TXANELA proiektuan eta ahalik eta komunikazio momenturik aberatsena bihurtu dadin, ondo egituraturako eta gidaturako proposamenak egiten dira. Haurrak garatu beharreko hizkuntza funtzio inguruan sortzen da elkarrizketa. Funtzioak definitzeko orduan, Joan Tough-en sailkapena (*Lenguaje, conversación y educación*. Visor, Madrid 1989) hartu da oinarri bezala. Tough-ek eskola testuinguruko komunikazio egoeren analisia egin ondoren, honako hizkuntza funtzio nagusiak proposatzen ditu, bakoitzaren azpi funtzioak ere zehazten dituelarik:

1. Norbere buruaren baieztapena.
2. Norberaren edo besteen ekintzen bideratzea.
3. Oraingo eta lehen bizi izandako esperientzien kontaketa.
4. Arrazonamendu logikoa.
5. Iragarri.
6. Proiektatu.
7. Imajinatu.

Funtzio hauen etengabeko lanketa esplizitua eta inplizitua proposatzen da TXANELA proiektuan. Liburuaren azaletik hasi (behaketatik hipotesiak formulatzerainoko bidea eginaz), eta konpartitzen diren jardura gehienetatik jarraituaz (ipuinak, olerkiak, ingurune behaketa/konparaketak...). Gidoi hau era malguan eta komunikazio tresna bezala erabili beharko luke irakasleak.

### 3.- Literatura.

Literaturaren inguruan eginiko irakaskuntza eta ikaskuntzak ikasleen ahozko nahiz idatzizko komunikaziorako trebezien garapenean eragin zuzena du. Hori dela eta, Txanela proiektuak garrantzi berezia eman dio literatura atalari eta bereziki ikasleak ahozko literaturarekin zerikusia duten genero edo azpigeronekin harremanetan jartzen ditugu: abestiak, jokoak, asmakizunak, bertsoak, txisteak, esaera zaharrak, ipuinak edo eta poemak buruz ikasten, esaten, abesten, errezitatzen, asmatzen... Horrek guztiak entzuteko eta hitz egiteko gaitasunean eragingo du: hitz eta esamolde berriak deskubritzen eta bereganatzen lagunduko dio ikasleari eta baita ahozko komunikazioak berezkoak dituen elementu prosodikoak (intonazioa, azentua, ahoskera, etab.) nahiz keinuzkoen esanahia egoki ulertzen eta nork bere erabileran txertatzen ere.

Bestalde, ahozko literatura abiapuntu sendoa dugu euskalkien trataerarako. Ahoz ahoko transmisioaren bidez iritsi diren literatur lanak dira hizkuntz aldaera gehien islatzen dituzten testuak. Testu horiek zer esaten eta nola esaten duten aztertze lanak nahiz haiek errezitateak edo eta buruz ikasteak norberarena ez den beste euskalkien oinarritzko lexikoaren jabekuntza erraztuko dio ikasleari, eta, horrekin batera, baita euskalki horietan ematen diren mezuen oinarritzko ulermen maila ere.

## **HIZKUNTZA IDATZIAREN TRATAERA**

Aipatutako ikuspegi komunikatibo-eraikitzailetik, honako hauek dira hizkuntza idatziaren trataerarako ardatzak Txanela proiektuan:

### **1. KOMUNIKAZIO IDATZIA HELBURU**

Hizkuntza idatzia komunikazio sistema berezia kontsideratzen da bere funtzio eta ezaugarri propioekin eta haren lanketarako abiapuntua bizitza errealean, edozein komunikazio eremutan, sortzen diren idatzizko erabilerak izango dira. Idatziak ahozkoak betetzen ez dituen funtzioak ditu gure gizartean: memoria gordetzea, kontrol soziala, informazioa bildu, antolatu eta gogoratzea, etab. Funtzio horiek egoera desberdinetan ematen dira, erabilera testuinguru desberdinetan, eta bakoitzean bai forma eta bai eduki aldetiko ezaugarri bereziak dituzten testu motak sortuko dira. Testu mota horiek izango dira gure langai nagusia. Ikuspegi honetatik, ez dago hortaz irakurketa-idazketa isolatutako aprendizai bezala tratatu beharrik, gelako bizitzan era naturalean integratutako edukia izango baita, arlo guztiak besarkatuz eta gela barruan nahiz gelatik kanpo sor daitezkeen harreman sozialetan integratuz. Horietaz baliatzea da kontua, egiten dugun guztia era egituratuan eta zuhurrean antolatuz aprendizai une bilakatzea. Erabilera hauetako bakoitza aztertuz, bideratzen duen mezu idatziaren ulermen/ekoizpen prozesua identifikatu, eta hari lotutako eduki multzoa eta jarduera proposamena egingo da.

### **2. IKASLEAREN BILAKAERA PROZESUA: PAUSU BERRI BAT IBILBIDE LUZEAN**

Ikuspegi eraikitzailearen ildotik garatzen da, esan bezala, TXANELA proiektu kurrikulara. Honenbestez, hizkuntza idatzia ikasleak eraikitzen duen ezagutza gisa kontsideratzen dugu eta beraz, jaiotzeko momentuan hasi eta bizitza osora hedatzen den etengabeko aprendizai bezala hartzen dugu. ikaslearen prozesuaren ikuspegitik abiatutako aprendizai bideratuko da, etengabeko bilakaera prozesu gisa, ikasleen aniztasuna errespetatuz eta idatzizko jarduerak bakoitzaren garapen erritmoari egokituz.

Ikuspegi honen ondorioz, ez dago irakurketa-idazketaren hasierarako metodo edo eta planteamendu didaktiko itxi bat Lehen Hezkuntzako Lehen Ziklora mugatzen dena, baizik eta Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzaraino ikuspegi eta metodologi oinarri berberak erabiliko dira, etapa bakoitzean eduki desberdinek pisu desberdina hartuko badute ere. Ikuspegi integratu honetan adibidez, dezifraiak pisu berezia du Lehen Zikloan baina gerora ere irakurketa azkarra eta eraginkorra lortu ahal izateko, kodea lantzen jarraituko dugu.

Lehen Hezkuntzako 2. zikloko lan nagusia, 1. zikloan ezarritako oinarrizko trebezien sendotze lana da; ikasleari daraman eraiketa prozesu horretan hurrengo pausua ematen laguntzea, hain zuzen ere. Horretarako oso garbi izan behar dugu aurretik egindako bidea. Haur Hezkuntzatik hasi eta 1. zikloan zehar, esan bezala, ikaslea abiapuntu duen planteamenduan oinarrituta garatu da irakurketa-idazketaren hasierako prozesua. Honek 3. mailako lanari aurre egiteko momentuan argibide batzuk ematen dizkigu, bide horretan lanean jarraitzea baita gure eginbeharra.



<b>IDATZIA</b>	<b>OBJETUA ABIAPUNTU</b>	<b>IKASLEA ABIAPUNTU</b>
<b>NOIZ?</b>	Ikastolaren erabakia; Aprestuziaia zerotik hasi 5 urte edo eta 1. mailan.	Jaiotzetik hasten da; Aurrezaguerak kontuan hartu behar dira.
<b>ZER?</b>	Idazketa kodea: Forma.	Hizkuntza idatzia: Esanahia.
<b>HELBURUA</b>	Dekodifikazioa: Esaten duguna idatzi.	Komunikazioa; idatzizko mezuak jaso eta eman.
<b>ABIAPUNTUA</b>	Grafia-fonema lotura.	Idatziaren erabilera eta harekiko interesa.
<b>PROZESUA</b>	Dekodifikazioa lehendabizi, ulermena, adierazpena ondoren.	Estrategia guztiak batera garatzen dira. Irakurritik-idatziz iristen da ikaslea grafia-fonema loturara.
<b>DENBORALIZAZIOA</b>	Mugatutako epea: hasi/bukatu.	Etengabeko prozesua.
<b>OINARRIA</b>	Pertzepzioa eta motrizitatea: dezifratu.	Estrategia kognitiboak: pentsatu (dezifraia barne).
<b>SEKUENTZIAZIOA</b>	Sistemaren elementuen progresioa: errazenetik zailenera.	Haurraren garapen prozesua: Ontogenesisia.
<b>BILAKAERA</b>	Kuantitatiboa: Elementuak gehitzen.	Kualitatiboa: Hipotesiak aldatzen.
<b>LAN UNITATEA</b>	Hitza/esaldia.	Komunikazio ekintzak: Testuak haien testuinguruan.
<b>IRAKASLEAREN LANA</b>	Irakatsi: Ezaguera transmititu.	Jabetzen lagundu: Idatzia elkarrekin eraiki; ulermen/ekoizpen prozesuak bideratu.
<b>IKASLEAREN LANA</b>	Ikasi—trebatu.	Idatzia ikertu, aztertu; Kodea aurkitu, komunikazioan garatu.

### 3. TREBEZIA IDATZIEN GARAPENA

Irakurketa idazketa ez dira abilezia sinpleak (dekodifikazioa/transkripzioa); prozesu kognitibo konplexuak dira; idatzia ahozkoaren transkripzio hutsa baino askoz ere gehiago baita. Irakurtzeak eta idazteak, funtzio sozial bati erantzuteko testuen ulermen/ekoizpen prozesu konplexua suposatzen dute beti. Kodifikazio eta dekodifikazio abileziak garrantzizkoak dira, jakina, baina idatziak irakurle/idazlearen aldetiko esanahiaren eraiketak prozesu aktiboa suposatzen du, eta prozesu horretan dezifraiarekin zerikusi gutxi duten estrategia kognitibo multzoa dago inplikaturik. Irakurketa ulermenerako estrategiak, hala nola: aurrezagueren aktibatzea, hipotesiak, inferentziak, edo aurreikuspenak egitea, sintesia eta balorapen kritikoa, etab. Edo eta ekoizpen estrategiak: planifikazioa (kontestualizazioa eta edukiaren egituraketa), testualizazioa, idatziaren berrikusketa eta zuzenketa, etab. Guztiak dira hizkuntza idatziaren irakaskuntzaren hasiera-hasierako eduki, dekodifikazioarekin etengabeko interakzioan daudenak eta batera irakatsi beharrekoak.

Honenbestez, trebezia idatzien garapena -irakurketa eta idazketaren garapena-, ondorengo ardatz metodologikoetan oinarrituko da:


➤ **Irakurketa interaktiboa:**

Irakurketa irakurle eta testuaren arteko komunikazio ekintza bezala, irakurlearentzat problemaren ebazpena bezala, ikusten da. Irakurritakoaren ulermena, irakurleak egiten duen eraiketa lanaren ondorioa da eta horretan bi ardatzekin jotzen du: testuko informazioa ahalik eta azkarren eta zehatzen jasotzeko trebeziak (dekodifikazioa oinarri dutenak), eta informazio hori prozesatzearen eta testuko informazio berriak bere aurre-ezaguerekin lotzearen eginkizun kognitibo aktiboa bideratuko duten *ulermen estrategiak*.

Esanahia eta dekodifikazioa beti gertatzen dira elkarrekin irakurketa lanean, dekodifikatzeko bide bakarrik ez baitago: irakurle trebeak ez du inoiz soinu-letra korrespondentzi soila egiten, elementu desberdinak hartzen ditu kontuan transkripzio ahalik eta eraginkorrena egiteko. Batetik, ezaguera fonologikoa erabiliko du, hizkuntzaren errepresentazio alfabetikoaren ezagutza. Bestetik, hizkuntz egituraren ezaguera metalinguistikoa erabiliko du, hitz baten ondoren zein hitz gerta daitekeen aurreikusteko. Hainbat hitz ordea, era globalean errekonozituko ditu, haien irudia memorian gordeta baitu. Azkenik, bere aurrezaguerak eta irakurketaren testuingurua erabiliko ditu, etorriko dena aurreikusteko, eta hitz ezezagunak interpretatzeko. Irakurketa lanak elementu horiek guztiak biltzen ditu eta dekodifikazio prozesuan guztiak dute eragina.

Honenbestez, irakurketa prozesu konplexu gisa kontsideratzen dugu eta bere osotasunean lantzen dugu. Irakurtzeak beti ere, hiru aldetiko informazioarekin jotzea suposatzen du: kodearen korrespondentzia erregelak batetik, testuaren informazioa bestetik eta irakurlearen aurrezaguerak, (komunikazio testuinguruarekiko, gaiarekiko, etab.) eta estrategiak hirugarrenik. Esanahiaren eraiketa honetan, ulermen estrategien ahozko lanketak garrantzi handia izango du TXANELA PROIEKTUAN.

**ULERMEN ESTRATEGIAK**



➤ **Testu pedagogia:**

Idazketaren kasuan ere, ahozkoa idatzira ekartzeko prozesua baino gehiago dago tartean. Hemen ere, prozesu kognitibo konplexuak daude nahasiak eta beraz, idazketa ere ikuspegi integratu horretatik lantzen da TXANELA proiektuan, esanahitik abiatutako mezuaren eraikuntza lana bezala. Komunikazio ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi nahi dugun edukia eta horien ondorioz erabiliko ditugun hitzak eta formak banaezinak dira idazketaren jabeak prozesuan. Orokortasun honi heltzeko bide bakarra, idatzia komunikazio ekintzetan oinarrituta lantzea da. Norbaiti, zerbait egiteko, egoera jakin baten ondorioz erabiliko dugu hizkuntza idatzia. Komunikazio unitatea den hizkuntz zatia hartzen dugu langai: testua, ez esaldia edota hitza, eta egoeraren arabera sortutako testu mota desberdinekin lan egingo dugu.

Testuok eraikitzeke beharrezko diren *ekoizpen estrategia* guztiak era integratuan landuko ditugu, testuaren ezaugarri guztiak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, zuzentasuna, kontuan hartzen ditugularik ere. Hauek dira ekoizpen estrategia nagusiak:

◆ Planifikazioa

Idatziko duguna pentsatu egiten dugu, prestatu. KONTESTUALIZAZIOA ETA EGITURAKETAREN inguruko lanketa egingo dugu: **Zer, zertarako, norentzat, nola.**

- a) Egoera aztertu: Nork irakurriko du? Nolakoa da irakurlea? Zer daki gaiari buruz? Zer lortu nahi dut? Nola nahi dut nire burua aurkeztu idazle bezala? Zein da media? (eskutitza, egunkaria, oharra paretan, faxa...).
- b) Ideiak sortu: Gaiari buruzko ideia bilduma egin. Norberaren ezagueretan oinarriturik edo eta hainbat informazio iturritan bilatuz. Zer esan nahi dugu?
- c) Ideiak antolatu: Jasotako ideia horiek guztiak testuan ordenatu, irakurlearentzat logikoa eta ulergarria egin. Ideia zerrendak egin, multzokatu, informazioa sailkatu, dagokion testu motaren eskemak erabili, mapa kontzeptualak eraiki...

Une honetan, aho hizkuntzaren lekua garrantzi handikoa da. **Talde lanean** egingo da testuaren planifikazioa. Idatziak hizkuntzaren erabilera elaboratuagoa, tresna kognitibo konplexuak eskatzen ditu, elkarriketak, berbalizazioak, elkarlanak, hauen bideraketan laguntzen du. Ikus ditzagun bi testu moten inguruko planifikazio proposamena:

◆ Idazketa:

TESTUALIZAZIOAREN unea da. Kodifikazioak izango du hemen bere lekua baina ez bakarrik; Idatziak hizkuntza zehatzagoa, zuzenagoa, egituratuagoa eskatzen du eta beraz, hizkuntza sistema beraren lanketarako unea sortzen da hemen. Elkarrekintzan egingo dira lehenengo hurbilpenak, irakasleek “idazkari” lana egingo dutelarik, hainbat kasutan.


◆ Berrikusketa:

Idaztea ez da gauza espontaneo. Prozesu rekutsiboa da, idazterakoan behin eta berriro atzera jotzen dugu. Atzera jotze eta etengabeko zuzenketa prozesu hori normala da, edozein idazlek egiten duena. Ohitura hori hartu beharra dago. Hainbat testu ekoizpen lanetan, lehenik zirriborroa idatziko dugu eta gero aurreko hiru operazioen egiaztapena bilatuko dugu testuan. TXANELA proiektuan, elementu ezberdinen analisisa proposatzen da forma eta eduki mailan, ez bakarrik azalekoa (kodifikazioa e.a.).

◆ Edizioa:

Txukun idatzi, orrian antolatu, ilustratu, dokumentu atsegina lortu... Testu bakoitzaren zereginaren arabera lan honen esparrua aldatuko bada ere, idatziarekiko motibazioa eta interesa suspertzeko unean egindako lanaren balorapen baikorra lortzea eta gizarte mailan eragina izatea garrantzizkoak dira. TXANELAn, proposatzen diren hainbat lanetan, proiektu izaera dutenetan batik bat, edizioari dagozkion ezaugarriak landuko dira. (Ikus ekoizpen estrategiak koadroa).


### EKOIZPEN ESTRATEGIAK



## 4. IDATZIA ERAIKUNTZA SOZIALA

### ➤ Idatziaren eraikuntza elkarreragilea

Jabekuntza prozesu honetan elkarlanak izugarritzko garrantzia hartzen du. Esanahia eta formaren negoziazioan datza apendizaiia. Idatzia partekatutako jardueretan eraikiko da. Helduarekiko harremanetan, helduak emango baitio hurrari idatz ekintzaren eredia, irakurtzerakoan eta idazterakoan zer egiten dugun erakutsiz. Eta haurren arteko harremanetan ere, idatziarekiko ezagutzak eraikitzeke lanean, hizkuntza komuna baitute, helduek kostatuta jarraitzen duguna. TXANELA proiektuan idazteko zein irakurtzeko eginkizun desberdinetan era askotariko kudeaketa proposamenak eskaintzen dira, irakasleak zuzenean modelatutako jardueretatik hasi eta ikasleak autonomi osoz egiten dituen lanetaraino. Ondoko koadroan ikus daitezke elkarrekintza eredu desberdinak eta haien ezaugarri nagusiak:



### ➤ **Familiarekiko harremanak**

Elkarlan honetan familiaren garrantzia oso handia da. Irakurle-idazle eredu etxean izateak trebezia idatzien garapenean eragin zuzena du. Hasierako etapetan haurren aprendizia bere eguneroko bizitzan sustraituta dago, bere esperientzi eta bizipenetan sustraituta. Ikastolan eta ikastolatik kanpo egiten duen guztia elkar-erlazionaturik dago, eta bi eremu horietan egiten duenak garrantzi handia du bere heziketarako. Zentzuen eta esanahien bilaketa gunea da bai eskola barrua eta bai eskola inguratzen duen guztia. Ezinbestekoa da hortaz, ikastolaren eta familiaren arteko harreman giro egokia eta erraza ahalbideratzea. Eta harreman horrek komunikaziorako, eta bereziki hizkuntza idatzia garatzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu.

Ezin dugu irakurle ez den gurasoa irakurle bihurtu seme-alaben aitzakiaz, baina bai ikastolatik familiaren irakurketa-idazketa ekintzak bultzatu; haurrekin batera egin beharreko “etxeko-lan” txikiak eskatuz (informazio bilketa esperientzien berri ematea...). Gurasoen, familiaren partaidetza era planifikatu eta antolatu batean ziurtatuz, haurren idatziarekiko motibazioa eta aprendizia prozesua areagotzea lortuko dugu.

Non aurki daiteke komunikazio idatzia Lehen zikloko gelan?

<b>TESTUINGURUAK</b>	<b>ERABILERA</b>
<b><u>GELAKO EGUNEROKOAK</u></b> Antolaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asistentzia</li> <li>• Ardurak</li> <li>• Jabetzak</li> <li>• Lan taldeak.</li> <li>• Gauza eta espazioen izendapena</li> <li>• Arauak</li> <li>• Lan plangintza</li> </ul>
<b>Eguneroko informazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jangelako menua</li> <li>• Data</li> <li>• Eguraldia</li> <li>• Urtebetetzeak</li> </ul>
<b>Pertsonarteko komunikazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zoriontzeak</li> <li>• Beste ikastolei gutunak eta postalak</li> <li>• Jai eta aurkezpenetarako gonbidapenak.</li> <li>• Gurasoei/ gurasoengandiko oharrak eta gutunak.</li> </ul>
<b><u>LITERATURA</u></b> Ipuina	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako/ikastolako liburutegia, mediategia.</li> <li>• Irakasleen ipuin irakurketa</li> <li>• Ikasleen ipuin irakurketa.</li> <li>• Izenburuak.</li> <li>• Pertsonaiak</li> <li>• Ipuinen (ber)sorkuntza: irudiak, dialogoak, kontaketa.</li> </ul>
<b>Abesti, olerki eta asmakizunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izenburuak</li> <li>• Kopiatu eta ilustratzea</li> <li>• Bildumak</li> <li>• Olerki, asmakizunak sortzea.</li> <li>• Orden egokian idaztea.</li> </ul>
<b><u>JOLAS</u></b> <b><u>SINBOLIKOA</u></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosketak: rotuloak, zerrendak, gaiak...</li> <li>• Bidaiak: txartelak, rotuloak, mapak, etab.</li> <li>• Aurkezpenak: horma irudiak, programak, sarrerak, txartelak, etab.</li> <li>• Sendagilea: errezetak...</li> </ul>
<b><u>INTERESGUNEEN</u></b> <b><u>GARAPENA</u></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio bilketa iturri desberdinetan. Txoko zuria.</li> <li>• Informazio dossierak.</li> <li>• Komunikabideen bidezko informazioa.</li> <li>• Ikerketa eta esperimentazioa.</li> <li>• Instrukzioak: errezetak, jolasak, eskulanak, fitxak etab.</li> <li>• ...</li> </ul>

Erabilera hauetako bakoitzak, mezu idatziaren ulermen/ekoizpen prozesu bat bideratuko du, eta egoera bakoitza aztertuz, hari lotutako eduki multzoa eta jarduera proposamena egingo da, irakurketa-idazketaren lanketa bizitzan integratuz.

## **KODEAREN JABEKUNTZA PROZESUA.**

Aipatutako ikuspegi integratu honetan, kodearen jabekuntza eraikuntza prozesu baten bidez emango da. Beraz, TXANELA proiektuan, kodearen lanketan ez da alfabetoa eta letren irakaskuntza oinarritzat hartuko, baizik eta idatziaren ontogenesian oinarritutako lana egingo da. Teberosky eta Ferreireoren (1982) lanen ondorioz frogatuta dago prozesu unibertsala ematen dela idatziaren eraikuntzan. Ume guztiek, epe eta erritmo desberdinetan, noski, idatziarekiko prozesu kualitatiboa garatzen dute, idatziaren funtzionamenduarekiko bere hipotesiak egin, frogatu, aldatu eta berriak eginez, azkenean hipotesi alfabetikora iritsi arte. Beraz, ikasleari jabekuntza horretan laguntzea da eskolako lana, bakoitza ezaguera horretan non dagoen eta zein pausu berri eman behar duen identifikatu, eta hurrengo pausu hori egiteko bideak eskaini.

Jabekuntza prozesu hau bideratzeko kodearen behaketaren inguruko lan kontestualizatua egingo da. Izenekin dekodifikazioaren sistematizaziorako hainbat jarduera proposatzen dira, hala nola hasierako letren behaketa eta konparazioa, bukaerako letren eta errimen behaketa eta konparazioa, hainbat izenen luzera eta silaba/kolpe kopuruaren behaketa, etab.

Kodearen eraikuntzan kontzientzi fonologikoak garrantzi handia duenez, sistematizazio lanetan hitzekin jolastea, berdin hasi edo bukatzen diren hitzak bilatzea, hitzak aldatzea..., eduki nagusiak izango dira.

TXANELA proiektuak, bai lan-koadernoaren bidez, baita CD-romearen txertaturik hainbat erreplikapen jarduera proposatuaz, kodearen lanketarako aukera zabaltzen du. Hona jarduera tipo batzuen aipamena:

- Letra zopak
- Gurutzegramak
- Abestiak, bertsoak... ordenatuz osatu.
- Dagokion oina aukeratuz bertsoa osatu.
- Mezu sekretua osatu.
- Silabak era egokian elkartzuz hitzak osatu.
- Letra larria eta lotua erlazionatzeko ariketak.
- ...

\* Ulermen/ekoizpen estrategia orokorren lanketa osagarria. Lehen ikusi bezala, irakurketa eta idazketarekin zerikusia duten estrategia kognitiboak, neurri handi batean ahoz ere landu daitezke, talde laneko elkarrekintzan. Lanketa honetan gainera, hizkuntza beraren eraikuntzarako bide aberatsa zabaltzen da, idatziak zehaztapena eta zuzentasuna eskatzen baitu, ahozkoak baino maila handiagoan.